

UDALBURUA
Josu Artetxe

AIARAKO UDALAK 2014ko EKAINAREN 19an EGINIKO
OHIKO BILKURAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Lauren Uria
Esteban Hernando
Aitziber Álava
Garbiñe Alaña
Julio Etxaurren
Esmeralda Martínez
José Antonio Bartolomé
Iratxe Parro
Iraida Saenz de Lafuente
José Luis Pedruzo

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamalauko ekainaren hemeretzian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilkura egiteko. Josu Artetxe Arana alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

Jarraian, Eguneko Aztergaien Zerrendan dauden gaiak jorratu dira.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak arratsalde on esan eta eta Udalbatzara ongietorria eman die guztiei.

Ondoren, Eguneko Aztergaien Zerrendan gaineratutako puntuak jorratu dira.

Osoko bilkura hasi da Lauren Uria zinegotzi jauna iritsi aurretik. Geroago bertaratu da.

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2014ko maiatzaren 12an eginiko ezohiko osoko bilkuraren akta.

Ez da ezer aipatu aktaren inguruan, eta Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute akta.

2.- Onestea, bidezkoa bada, 2014ko maiatzaren 22an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.

Ez da ezer aipatu aktaren inguruan, eta Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute akta.

4.- Onestea, bidezkoa bada, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzu Sailak eta Aiarako Udalak 2014ko ekitaldirako Arespalditzako eguneko arretarako landa zentroa kudeatzeko eta mantentzeko sinatutako lankidetzaren hitzarmena luzatzea.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

HONAKO HAU IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzu Sailak eta Aiarako Udalak Arespalditzako eguneko arretarako landa zentroa kudeatzeko eta mantentzeko sinatutako lankidetzaren hitzarmena.

HONAKO HAU IKUSI DA.- Gizarte Ekintza Informazio Batzordeak 2014ko ekainaren 10ean emandako aldeko irizpena.

Udalbatza Osoak honako hau **EBATZI DU** aho batez:

Lehenengoa.- Onestea 2012ko abenduaren 28an Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuak eta Gizarte Politika Sailak eta Aiarako Udalak sinatutako lankidetzaz hitzarmena 2014ko abenduaren 31ra arte luzatzea, Arespalditzan dagoen eguneko arretarako landa zentroa (10 pertsonak batera erabiltzeko lekua duena) kudeatzeko eta mantentzeko.

Bigarrena.- Aiarako Udaleko alkateari eskumena ematea aipatu hitzarmena sinatzeko”.

6.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzako Fundazioaren arteko lankidetzaz hitzarmena, Arespalditzan herrian eguneko arretarako landa zentroa kudeatu eta mantentzeko 2014ko ekitaldian.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

HONAKO HAU IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzako Fundazioaren artean eginiko lankidetzaz hitzarmena, hain zuzen ere, Arespalditzan dagoen eguneko arretarako landa zentroa 2014. urtean kudeatzeko eta mantentzeko.

HONAKO HAU IKUSI DA.- Gizarte Ekintza Informazio Batzordeak 2014ko ekainaren 10ean emandako aldeko irizpena.

Udalbatza Osoak honako hau **EBATZI DU** aho batez:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzako Fundazioaren artean eginiko lankidetzaz hitzarmena, hain zuzen ere, Arespalditzan dagoen eguneko arretarako landa zentroa 2014. urtean kudeatzeko eta mantentzeko.

Bigarrena.- Aiarako Udaleko alkateari eskumena ematea aipatu hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Alday Ongintzako Fundazioari, eta hitzarmenaren bi kopia eranstea, horietako bat behar bezala sinatuta aurkez dezan.

5.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako erabilera anitzeko zentroa proiektuaren idazlariek eta obraren zuzendaritza eta exekuzioaren zuzendaritza zerbitzua emateko kontratatutako enpresak aurkeztutako proposamena, 119/2012, 160/2012, eta 214/2012 ohiko prozedurei amaiera emateko, prozesuz kanpoko akordio baten bidez. Akordio horren bidez, erabilera anitzeko obrek eragindako kalte-galeren erantzukizunagatik, Udal honi ordaindu beharreko kalte-ordaina kuantifikatzen da; zehazki, 725.000 euro dira.

Garbiñe andreak (EAJ) dio erantzukizuna eskatzeko prozesua aurreko Udalbatza Osoak abiarazi zuela; beraz, erabat ados dago proposamen horrekin.

Ez da gaiari buruzko besterik ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

HONAKO HAU IKUSI DA.- Batetik, Aiarako erabilera anitzeko zentroa proiektuaren idazlari J. L. eta F. P. jaunek jarritako 119/2012 eta 160/2012 ohiko prozedurak, hurrenez hurren, martxoaren 22an Udalbatza Osoak hartutako erabakiaren aurkakoa (erabaki horrek kuantifikatu

egiten ditu erabilera anitzeko zentroaren obrek eragindako kalte-galerak) eta maiatzaren 24an Udalbatza Osoak hartutako erabakiaren aurkako (erabaki horrek gaitzetsi egiten du likidazioaren aurkako berraztertze errekurtsua). Bi prozedurok izapidetu dira Vitoria-Gasteizeko Administrazioarekiko Auzien 1 eta 2 zenbakiko Epaitegian, hurrenez hurren.

Bestetik, 214/2012 ohiko prozedura, S. I. andreak eta AI 90 S.L. enpresak (obraren zuzendaritzarako eta obraren exekuzioaren zuzendaritzarako kontratatutako enpresak) martxoaren 24an Udalbatza Osoak hartutako erabakiaren aurka jarritakoa (erabaki horrek gaitzetsi egiten du otsailaren 6ko erabakiaren aurkako berraztertze-errekurtsua), eta gaitzetsi egiten da martxoaren 22ko erabakiaren aurkako berraztertze-errekurtsua (erabaki horrek kuantifikatu eta likidatu egiten du kalte-galeren ordaina). Prozedura hori Vitoria-Gasteizeko Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegian izapidetu da.

HONAKO HAU IKUSI DA.- Proiektuaren idazlarien eta obraren zuzendarien teknikoek abokatuek batera aurkeztu duten proposamena, zehazki, prozedura guztiei amaiera emateko prozesuz kanpoko akordio baten bidez, eta Udalari 725.000 euroko zenbatekoa ordaintzea.

Eskainitako kopuruak honako hauek hartzen ditu bere baitan: 2010eko irailaren 16an Udaleko zerbitzu teknikoek egindako txostenean zehaztutako kopuruak (berriro erabili ezin diren obra-unitateen balorazio gisa); obrak geldiarazi ostean, segurtasun-arrazoiengatik, lurrak kentzeko ezpondak egonkortzeko egindako obren gastuak; kaltetutako egitura eraisteko obren gastuak; eta, beharrezko zerbitzu teknikoek gastuak.

Proposamen hori Udalaren interesen aldeko da, amaiera ematen baitie interesdunek jarritako errekurtsu guztiei. Horrela, ekidin egiten da judizio-gastuak areagotzea eta aurkakoak izan litezkeen epaien arriskua.

HONAKO HAU AINTZAT HARTU DA.- Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/98 Legearen 77.3 artikuluan xedatutakoa.

Udalbatza Osoak 2014ko ekainaren 19an egindako osoko bilkuran, aho batez

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Onestea J. L. eta F. P. jaunen eta AI 90 SL enpresaren, S. I. andrearen eta L. O. de Z. andrearen ordezkariak aurkeztutako proposamena, 119/2012, 160/2012 eta 214/2012 ohiko prozedurei amaiera emateko (Vitoria-Gasteizeko Administrazioarekiko Auzien 1, 2, eta 3 zenbakietako Epaitegietan izapidetu dira, hurrenez hurren), eta prozesuz kanpoko akordioa lortzea, Aiarako Udalari ordaindu beharrekoa kalte-ordaina kuantifikatzeko. Guztira, 725.000 euro ordaindu behar zaizkio Aiarako erabilera anitzeko zentroaren obrek eragindako kalte-galeren ordain gisa (proiektuaren idazlariari eta AI90 SL enpresari egotzi zaizkie kalte-galera horiek). Modu eta epe hauetan ordainduko da:

- 650.000 euro, solidarioki ordainduko dituzte proiektuaren idazlariak eta obra zuzendaritzak (ASEMAS), hogeita hamar (30) eguneko epean, epaitegiak aipatutako judizio-jarduerak artxibatu egin direla jakinarazten duenetik aurrera zenbatzen hasita.

- 50.000 euro, proiektuaren idazlari J. L. eta F. P. jaunek ordainduko dituzte, hogeita hamar (30) eguneko epean, epaitegiak aipatutako judizio-jarduerak artxibatu egin direla jakinarazten duenetik aurrera zenbatzen hasita.

- - 25.000 euro, obraren exekuzioaren zuzendaritzak (MUSAAT) ordainduko ditu, hogeita hamar (30) eguneko epean, epaitegiak aipatutako judizio-jarduerak artxibatu egin direla jakinarazten duenetik aurrera zenbatzen hasita.

Bigarrena.- Erabaki honen berri ematea J. L. jaunari, F. P. jaunari, AI 90 SL enpresari, S. I. andreari eta L. O. DE Z. andreari. Halaber, jakinaraziko zaie interesdun guztiei, Vitoria-Gasteizeko Administrazioarekiko Auzien 1, 2, eta 3 zenbakietako Epaitegiei prozesuz kanpoko akordioa erdietsi dela jakinarazi ostean (inolako alderi kostarik ezarri gabe), adostutako moduan ordaindu beharko dela.

Ebazpen honen kontra aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, Udalbatza Oso honen aurrean, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen aurkeztu Vitoria-Gasteizeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean bi hilabeteko epean.

6.- Onestea, bidezkoa bada, 2015-2017 Aurrekontu-esparrua

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

HONAKO HAU IKUSI DA.- Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2012ko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa. 6. kapituluaren xedatzen da derrigorrezkoa dela Ogasuna eta Herri Administrazioak Ministerioari igortzea, epe ertainera, informazioa tokiko erakundeen aurrekontuak egiteko aurrekontu-esparruari buruzkoa.

HONAKO HAU IKUSI DA.- HAP/2015/2012 Agindua, urriaren 1ekoa, aipatutako apirilaren 27ko 2/2012 Legean aurreikusitako informazioa emateko betebeharrak garatzen dituenak.

HONAKO HAU AINTZAT HARTU DA.- Araba Lurralde Historikoan, Arabako Foru Aldundiak dauka Ogasuna eta Herri Administrazioak Ministerioari lurraldeko toki erakundeetara buruzko informazioa, aurreko paragrafoetan aipatutakoa, emateko ardura.

Udalbatza Osoak honako hau **EBATZI DU** aho batez:

Lehenengoa.- Onestea, epe ertainera (2015-2017 urteak), aurrekontu-esparrua, Ogasuna eta Herri Administrazioak Ministerioak emandako eredu sinplifikatuaren arabera. **I ERANSKIN** gisa gehitu zaio akordio honi.

Bigarrena.- Dekretu honi atxikitako dokumentazioa Arabako Foru Aldundira igortzea, bide elektronikoen bidez, Ogasuna eta Herri Administrazioak Ministeriora igorri dezan, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2012ko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa betetzeko.

5.- Alkatetza Dekretuak:

- **Erref.- 189/14- Retes de Llantenoko Administrazio Batzarra.-** Retes de Llantenon bide bat hobetzeko obra-lizentziaren espedienteari dagozkion dokumentu gehiago eskatzea.
- **Erref.- 190/14- Llantenoko Administrazio Batzarra.- Llantenon bide batzuk konpontzeko obra-lizentziaren espedienteari dagozkion dokumentu gehiago eskatzea.**
- **Erref.- 191/14.-** CJGCri biztanleen udal-errolan baja emateko espedientea izapidetzeko onartzea, behar ez bezala inskribatuta egoteagatik.
- **Erref.- 192/14.-** LCRMri, MFSRri, eta VVVSri biztanleen udal-errolan baja emateko espedientea izapidetzeko onartzea, behar ez bezala inskribatuta egoteagatik.
- **Erref.- 193/14.- RVM.-** Zuazan dagoen eraikinaren erabilera egoitza-erabilerarako aldatzea baimentzea.
- **Erref.- 194/14.- MAB.-** Zuazuko etxebizitzaren fatxada konpontzeko obra-lizentziaren espedienteari dagozkion dokumentu gehiago eskatzea.
- **Erref.- 195/14.- Arespalditzako Administrazio Batzarra.** Obretarako udal-lizentzia ematea, Arespalditzako La Llana auzoko lursailean haurrentzako jolas-ekipamendua egokitu eta jartzeko.
- **Erref.- 196/14.- Arespalditzako Administrazio Batzarra.-** Obretarako udal-lizentzia ematea, Arespalditzako hilerriaren ondoko bidea egokitzeko.
- **Erref.- 197/14.- A.I.A.-** Obretarako udal-lizentzia ematea, Izoria udalerrian dagoen lursail batean itxitura konpontzeko.
- **Erref.- 198/14.- SSG.-** Zuazuko etxebizitzari atxikitako eraikina zaharberritzeko obra-lizentziaren espedienteari dagozkion dokumentu gehiago eskatzea.
- **Erref.- 199/14.- URG.-** Olabazarreko lursail batean nekazaritza-lanabesetarako etxola egin eta negutegia instalatzeko obra-lizentziaren espedienteari dagozkion dokumentu gehiago eskatzea.
- **Erref.- 200/14.-** Bideetako sastraka kentzeko zerbitzuaren kontratua Lizelan, SLri esleitzea.
- **Erref.: 291/14.- Maroñoko eta Ozekako Administrazio Batzarrak.-** 2013ko argiteriaren gastuaren % 50eko diru-laguntza ematea.
- **Erref.- 202/14.- JUS.-** Luzapena ematea, Menagaraiko erakina birgaitzeko eta berritzeko obrei hasiera emateko.
- **Erref.- 203/14.- IM.-** Obretarako udal-lizentzia ematea, dagoen hesia kentzeko, Menagarain dagoen lursail batean hormigoizko zolata egin eta sare-itxitura jartze aldera.
- **Erref.- 204/14.- JMCR.-** fidantza eskatzea, Zuazan nekazaritza-lanabesetarako etxola eraikitzeko obretako hondakinak behar bezala kudeatzeko.
- **Erref.- 205/14.- JMLV.-** Beotegin dagoen erakin bateko teilatua aldatzeko obra-lizentziaren espedienteari dagozkion dokumentu gehiago eskatzea.
- **Erref.- 206/14.- JKG.-** Jakinaraztea eskatzen duen obra-lizentzia eman ahal izateko, beharrezkoa dela Arabako Foru Aldundiko Ondare Historikoa Zerbitzuak emandako aurretiko txostena edukitzea.
- **Erref.- 207/14.- RVM eta JAB.-** Udal-lizentzia eta obrei hasiera emateko baimena ematea, Zuaza udalerriko Zerraba auzoko bi eraikinek osatzen duten etxola zaharberritu eta sendotzeko.
- **Erref.- 208/14.- Kexaako Administrazio Batzarra.-** Obretarako udal-lizentzia ematea, Kexaan saneamendu-sarea zati batean konpontzeko.

- **Erref.: 209/14.- Erbiko Administrazio Batzarra.-** Obretarako udal-lizentzia ematea, Erbin herri-bidean segurtasun-hesia jartzeko.
- **Erref.- 210/14. GTE.-** Jarduera sailkatuen aurretiko komunikazioaren administrazio-espeditentari dagozkion dokumentu gehiago eskatzea.
- **Erref.- 211/14.- AFari** diru-laguntza eskatzea, 2014an euskara sustatzeko jarduerak egiteko.
- **Erref.- 212/14.- GTE.-** Landa-ostatua bihurtzeko baserria egokitzeko obra txikien lizentziaren espeditentari dagozkion dokumentu gehiago eskatzea
- **Erref.- 213/14.- Llanteno Administrazio Batzarra.-** 2013an herri argiteriaren gastua eta ikastetxeetako argi-gastua ordaintzeko diru-laguntza.
- **Erref.- 214/14.- MVD.-** Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea.
- **Erref.- 215/14.- RVR.-** Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea.
- **Erref.- 216/14.- TVO.-** Obra-lizentzia ematea, Arespalditzako etxebizitza baten ondoan dauden hormak egokitzeko.
- **Erref.- 217/14.- JMR.-** Obretarako udal-lizentzia ematea, Zuazuko lursail batean nekazaritza-lanabesetarako etxola eraikitzeko.
- **Erref.- 218/14.- Llanteno Administrazio Batzarra.-** Fidantza eskatzea, Llantenon ur edangarria eskuratzeko sarea aldatzeko obretako hondakinak behar bezala kudeatzeko.
- **Erref.- 219/14.- Transformaciones Metálicas Ambar, S.L.-** Jarduera irekitzeko espeditentari dagozkion dokumentu gehiago eskatzea.
- **Erref.: 220/14.-** 3-2014 kreditu gehigarriari buruzko espeditentea.
- **Erref.: 221/14.-** 4-2014 kreditu gehigarriari buruzko espeditentea.
- **Erref.- 222/14.- AUZ.-** Izorian nekazaritza eta abeltzaintzako etxola obra-espeditentari dagozkion dokumentu gehiago eskatzea.
- **Erref.- 223/14.- Izoriako Administrazio Batzarra.-** Obretarako udal-lizentzia ematea, herri-argiteriaren hormigoizko zutoina jartzeko.
- **Erref.- 224/14.- Izoriako Administrazio Batzarra.-** Obretarako udal-lizentzia ematea, Babio mendian bidea konpontzeko.
- **Erref.- 225/14.- CMLO.-** 2014ko ibilgailuen udal-zeruari dagokion ordainagiria itzultzea, ibilgailuari behin betiko baja emateagatik.
- **Erref.- 226/14.- AZO.-** 2014ko ibilgailuen udal-zeruari dagokion ordainagiriaren zati proportzionala itzultzea, ibilgailuari behin betiko baja emateagatik.
- **Erref.- 227/14.- CMAZ.-** 2014ko ibilgailuen udal-zeruari dagokion ordainagiriaren zati proportzionala itzultzea, ibilgailuari behin betiko baja emateagatik.
- **Erref.- 228/14.- AAC.-** 2014ko ibilgailuen udal-zeruari dagokion ordainagiriaren zati proportzionala itzultzea, ibilgailuari aldi baterako baja emateagatik.
- **Erref.- 229/14. JACB.-** 2014ko ibilgailuen udal-zeruari dagokion ordainagiriaren zati proportzionala itzultzea, ibilgailuari aldi baterako baja emateagatik.
- **Erref.- 230/14.- FJGF.-** 2014ko ibilgailuen udal-zeruari dagokion ordainagiriaren zati proportzionala itzultzea, ibilgailuari behin betiko baja emateagatik.
- **Erref.- 231/14.- MGAP.-** 2014ko ibilgailuen udal-zeruari dagokion ordainagiriaren zati proportzionala itzultzea, ibilgailuari behin betiko baja emateagatik.
- **Erref.- 232/14.- Anida Operaciones Singulares, S.A.-** Lehenengo okupaziorako lizentzia ematea, Luitaondoko Restergo kaleko 7-2. C; 7-2. D eta 9-2. A; 9-2. C eta 9-2. D zenbakietako etxebizitzetara.

- **Erref.- 233/14.- PHA.-** 2014ko ibilgailuen udal-zergari dagokion ordainagiriaren zati proportzionala itzultzea, tarifak aplikatzean egindako hutsegiteagatik.
- **Erref.- 234/14.-** Llanteno Administrazio Batzarra.- Obretarako udal-lizentzia ematea, Llantenen ur edangarria eskuratzeko sarea aldatzeko.
- **Erref.- 235/14.-** Onestea F/2014/5 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.
- **Erref.- 236/14.-** **Esleitzea nekazaritzako plastikoak biltzeko zerbitzuaren kontratua.**
- **Erref.: 237/14.- JMEG.-** **Obretarako udal-lizentzia ematea, Zuazako etxebizitza baten estalkia (4m2) konpontzeko.**
- **Erref.- 238/14.- OSJM.-** Fidantza eskatzea, Izoriako lursail batean hiru txakurtegi eraikitzeko obretako hondakinak behar bezala kudeatzeko.
- **Erref.: 239/14.- PJAA.-** Obretarako udal-lizentzia ematea, Retes de Llanteno etxebizitza batean estalkia teilaberritzeko.
- **Erref.- 240/14.- RVR.-** Txakurra inskribatzea arriskutsuak izan daitezkeen txakurren erregistroan.
- **Erref.- 241/14.- GCA-** Obra-lizentziaren espedienteari dagozkion dokumentu gehiago eskatzea.
- **Erref.- 242/14.- KISM-** Obra-lizentziaren espedienteari dagozkion dokumentu gehiago eskatzea.

Udalbatza Osoa jakitun geratu da.

8.- Eskakerak eta galderak.

- Garbiñe andreak (EAJ) galdetu du ea ba al dakiten ezer eskola-garraioari buruz, ez aldaketarik izan den joan den ikasturteari dagokionez.

Josu jaunak (BILDU) erantzun du ez dagoela horren inguruko berririk. Ez dakite zein mugimendu egin duen ikastolak. Badirudi berdin jarraitzen dugula gai honetan.

- Iratxe andreak (AB) ea ezer mugitu duten Eusko Legebiltzarrean. Hala ez bada, erabaki egin beharko zein jarduera abiarazi.

Josu jaunak erantzun du badakiela Eusko Legebiltzarrean horretaz hitz egin dutela. Bada, berdinketa gertatu da erdibideko zuzenketa baten bozketan, eta badirudi ez dela ezer erabaki.

Hemeretziak eta hamabost minutu direnean, Lauren Uria zinegotzi jauna sartu da bilkuran.

Josu jaunak (BILDU) dio saiatuko dela aztertzen zer egin daitekeen, ikastolako IGerekin hitz egingo duela, abiarazi nahi dituzten jarduerak babesteko.

Garbiñe andreak (EAJ) esan du euren talde politikoarekin hitz egingo dutela, jakiteko zer gertatu den Eusko Legebiltzarrean, eta denekin komentatuko duela.

- José Luis jaunak (PP) galdetu du zer gertatzen den estalkiaren egiturarekin.

Josu jaunak erantzun du galdutzat jo dutela. Egoin enpresaren dei baten zain dago, beraiek heldu baitiote Holtzaren guztiari. Komentatu zuten ez dutela zer ikusirik Holtzaren konpromisoekin, baina deitu egingo zutela gaia berresteko. Oraindik ez dute deitu.

Holtzaren arazoa jakinarazi zigutenean, arazo batekin egin genuen topo, aukera gutxi baitzeuden egitura hori mugitzeko. Garraio berezia eta biltegiratze-sistema kontratatu beharko zen, eta horrek gastu handia zekarren.

José Luis jaunak adierazi du duela urtebete Josu jaunak komentatu zuela saiatuko zirela jartzen, bere kontakturen bat baliatuta.

Josu jaunak esan du halaxe egin zutela. Modu guztietara saiatu ziren, baina ezin izan zen. eraikin jakin baterako diseinatutako xafla-egitura da.

Iratxe andreak (AB) dio igerilekuetan erabiltzea ere pentsatu zutela, baina aparejadoreak esan zuen ezinezkoa zela.

Iraida andreak (AB) esan du Holtzako konkurtso-administrariak Udalari jakinarazi ziola estalkia bertatik kentzen ez bazuen, Udalaren erantzukizuna izango zela. Beraz, ezer gutxi egin ahal izan zen.

José Luis jaunak dio bazegoela merkaturatzea eta zerbait irabaztea.

- José Luis jaunak (PP) adierazi du baloreen ponentzia igorri dutela berriro, eta ea zer esaten zaien.

Idazkariak azaldu du iaz alegazioetarako epea eman zietela, luzatu egin zietela eta prozedura osoa egiteko denborarik ez zuten, erabaki zuten bertan behera uztea eta 2014an heltzea berriz. Berriz igorri digute. Hor dago alegazioren bat egin nahi bada. Epea igaro zen alegaziorik egin gabe, eurek behin betiko onetsi zuten baloreen ponentzia eta jakinaraziko digute.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta hogeita hamar minutu zirenean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezten, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamalauko ekainaren hemeretzian.

OE
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Izpta.: Josu Artetxe Arana

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.

- ANEXO I -

MARCO PRESUPUESTARIO 2015-2017
MODELO SIMPLIFICADO PARA ENTIDADES DE MENOS DE 5.000 HABITANTES

Código	0
Provincia	1
Corporación	AYUNTAMIENTO DE AYALA
Tipo de Entidad	Ayuntamiento
Nombre de la Entidad o Ente	AYUNTAMIENTO DE AYALA

[VOLVER](#)
 MARCO PRESUPUESTARIO 2015-2017

FP.2 Datos de previsión económica del Marco (modelo simplificado)

	2014	tasa variación 2015/2014	2015	tasa variación 2016/2015	2016	tasa variación 2017/2016	2017	Supuestos en los que se basan las proyecciones/ Adopción de la medida
Ingresos/Gastos	2.122.226,13 €		2.379.363,37 €		2.099.578,27 €		2.020.696,80 €	
Corrientes	1.913.859,07 €	1,68%	1.946.044,58 €	1,90%	1.983.019,43 €	1,90%	2.020.696,80 €	
Capital	208.367,06 €	107,96%	433.318,79 €	-73,10%	116.558,84 €	-100,00%	0,00 €	Para el año 2015 se prevé
Financieros	0,00 €	-	0,00 €	-	0,00 €	-	0,00 €	
Gastos	2.122.226,13 €		2.379.363,37 €		2.099.578,27 €		2.020.669,80 €	
Corrientes	1.793.888,02 €	2,93%	1.846.491,43 €	1,89%	1.881.474,77 €	1,90%	1.917.222,72 €	
Capital	328.338,11 €	62,29%	532.871,94 €	-78,13%	116.558,84 €	-75,23%	87.147,00 €	El importe total de la obra del
Financieros	0,00 €	-	0,00 €	-	101.544,66 €	-83,95%	16.300,08 €	
Saldo operaciones no financieras	0,00 €		0,00 €		101.544,66 €		16.327,08 €	
Ajustes para el cálculo de cap. o neces. Financ. SEC95	97.395,48 €							
Capacidad o necesidad de financiación	97.395,48 €		0,00 €		101.544,66 €		16.327,08 €	
Deuda viva a 31/12	0,00 €		0,00 €		0,00 €		0,00 €	
A corto plazo								
A largo plazo								
Ratio Deuda viva/Ingresos corrientes	0,00 €		0,00 €		0,00 €		0,00 €	